



FIAREREN EREMUKO TOPAKETA ETA BANCA ETICAREN (BpE) OHIZ KANPOKO BATZARRA

2015ko azaroaren 27, 28 eta 29a

Tokia: BARAÑAINGO ENTZUNARETOA.

Nafarroako komunitatea, 2, 31010 Barañain (Nafarroa)

OSTIRALA, azaroak 27

17:00 - 20:00 JENDAURREKO FOROA

Finantza etikoen ikuspegitik, ekonomia eraldatzeko nolako kreditu-politika behar dugun.

Eremu hau Fiare Banca Eticako bazkide guztiei ezezik, bestelako gizarteko eragileei eta, oro har, herritar guztiei ere irekita izanen da. [Bulegoa ezarri zenetik urte bat igaro ondoren, une garrantzitsuan gaude pentsatzeko zein eginkizun bete behar duen Banca Eticak, eraiki nahi dugun ekonomia berria bultzatzeko].

Edukiak:

- *FiareLab-en aurkezpena: batetik, dauden kreditu-beharrak, eta, bestetik, Fiare Banca Eticaren erantzun egokiak identifikatu eta eztabaidatzeko prozesua.*
- *Gizarte eremu eta esparru ekonomiko desberdinetako ordezkarien arteko elkarrizketa.*
- *Banca Popolare Etica osoaren barneko eztabaidaren egoera.*
- *Elkarrizketa entzuleekin.*

20:30h askaria.

LARUNBATA, azaroak 28

09:00 - 10:30 Batzarrean parte hartzeko izen ematea

10:30 - 15:00 BANCA ETICAREN OHIZ KANPOKO BATZARRA

Gai ordena

- *Presidentearen mezua.*
- *Estatutuak aldatzeko deliberoa.*
- *Batzarreko Arautegia aldatzea.*
- *Besteak.*

Batzarra (BpE-n lehenbizikoz) bi tokitan egingen da aldi berean: Padovan eta Barañainen, hain zuzen. Barañaingo kasuan Banca Eticaren Fiare Eremuko bazkide guztiak gonbidatu ditugu, hala ere, soilik eman ahalko dute bozka 2015eko uztailaren 31 baino lehen kapital soziala bihurtzeko prozesua burutu duten pertsonak (fisiko zein juridiko). [Batzarrek berebiziko garrantzia dute Banca Etica osorako. Kasu honetan, gainera, hauteskunde-arautegi berria eztabaidatu eta erabakiko da, eta horren bidez gobernatzeko era zehaztuko da, erronka instituzionalei aurre egin eta Banca Etican parte hartzea indartzeko asmoz].

15:00 - 16:30h Atsedena - Bazkaria

16:30 -19:30 AURRERA EGITEKO ELKARREKIN TOPATU ETA PARTEKATU (Aurkezpen bat eta lau tailer aldi berean)

- 1. aukera:** *Aurkezpena: ETICA SGR, Banca Eticaren taldearen aurrezkoa eta inbertsioa.*
- 2. aukera:** *Tailerra: Gizartean eragina duten finantzazio zirkuituak: esperientzia eta proposamenak.*
- 3. aukera:** *Tailerra: Fiare Banca Etica eta haren harremanak tokiko administrazio publikoekin.*
- 4. aukera:** *Tailerra: finantza heziketa Fiare Banca Etican.*
- 5. aukera:** *Tailerra: Bazkideek parte hartzea Fiare Banca Etican.*

Fiaren Banca Eticako partaide guztiei irekia. Aldi berean aurkezpen bat (BpEren errealitatearen ezagutza zabaltzeko) eta lau tailer, hautan interesa duten gai zehatzak landuko dira, esperientzia zehatzak ezagutu, hala gure Fiare eremukoak, nola BpEko beste lau eremuetakoak. [Eremu ezin aproposagoa, gure artean partekatu eta nahasteko, gertuko eta urrutiko esperientziak ezagutzeko, eta gure geroko lanerako ideia berriak aurkitzeko].

19:30 - 20:00 Atsedena

20:00 - 20:30 Azken agurra eta antzezpena

IGANDEA, azaroak 29

10:00 - 13:00 KULTUR BISITA IRUÑEAN, NAFARROAKO GIT-AK GIDATUA

Nahi duten Fiare Banca Eticako pertsona guziendako. [Partekatzen eta saretzen segitzeko aukera paregabea, gainera, kasu honetan, jolas giroan eta Iruñea topaketaren GIT anfitrioren eskutik].

10:00 - 13:00 EREMUKO FORUMAREN ETA GIT GUZTIEN KOORDINATZAILEEN ARTEKO TOPAKETA

Hemen bilduko dira gaur egun diren 20 GIT-etako koordinatzaileak eta Fiare Eremuko Foruma

(Kontseilaria, Operatibaren arduraduna, Esparru Sozio-Kulturalaren Arduraduna eta zonaldetako erreferenteak). [Topaketa honetan bizi dugun une garrantzitsu honetaz diagnostiko komuna egingen da eta barruti guztiean lan egiteko jarraibideak adostuko dira].

10:00 - 13:00 BLOGS - GITS AGERKARI BERRIAREN AURKEZPENA.

GITetako komunikazio arduradunei begira egingen da.